

GRADU AMAIERAKO LANA

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEAK ETA HERIOTZA: MUSIKAREN ERAGINA DOLU PROZESUAN

---

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2018-2019 IKASTURTEA

EGILEA: LEIRE ONSALO DAMBORIENA  
ZUZENDARIA: ANA URRUTIA RASINES

Leioan, 2019ko maiatzaren 27an

**AURKIBIDEA**

SARRERA.....	4
JUSTIFIKAZIOA.....	4
1. MARKO TEORIKOA.....	5
1.1 Dolua.....	5
1.2 Doluaren lanketa hezkuntzan.....	9
1.3 Musikaren erabilera dolu prozesuan.....	12
2. METODOLOGIA.....	15
3. LANAREN GARAPENA.....	16
3.1 Inkestaren interpretazioa.....	16
3.2 Materiala.....	17
3.2.1 Materialaren aurkezpena.....	17
3.2.2 Lehenengo fasearen bizipena.....	20
4. EMAITZAK ETA ONDORIOAK.....	21
4.1 Emaitzak.....	21
4.2 Ondorioak.....	23
5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK.....	25

**ERANSKINAK**

1. ERANSKINA: Inkesta.....	27
2. ERANSKINA: Inkestako galderen interpretazioak.....	29
3. ERANSKINA: Ez nazazu utzi.....	34
4. ERANSKINA: Fitxa hutsuneekin.....	34
5. ERANSKINA: Kontrol taulak.....	35
6. ERANSKINA: Abestien zerrenda.....	37

## LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEAK ETA HERIOTZA: MUSIKAREN ERAGINA DOLU PROZESUAN

Leire Onsalo Damboriena

EHU

Lan honen bitartez, hezkuntza esparruan heriotzak duen presentzia eta azken honen ondorioz dola prozesu baten baitan dauden pertsonen ematen zaien trataera aztertu ziren. Horretarako, lehenik eta behin heriotzaren eta honen ondorioz sortzen den dola prozesuaren inguruko ikerketa zein hezkuntzan musikak eta heriotzak duten lotura edota harremana ikertu ziren. Ostera, inkesta baten bitartez errealitatearen azterketa bat egin zen eta honen bidez, egun lanean dauden irakasleen iritziekin, heriotzaren didaktikak hezkuntzan duen hutsunea ikusi zen eta gabezi horri aurre egiteko, jarduera zehatz batzuk proposatu ziren, horietako bat praktikara eraman zelarik, ikasleekin heriotza lantzerakoan musikak duen indarra ikusiz eta bizituz.

*Hezkuntza, heriotza, dolua, heriotzaren didaktika, musika*

Mediante este trabajo, se estudió la presencia que tiene la muerte en el ámbito de la educación. Para ello, primero se hizo una investigación sobre la muerte y el proceso de duelo que causa y la relación que existe tanto entre la muerte y la educación como con la música. Después, se analizó la realidad utilizando una encuesta y con las respuestas recibidas por parte del profesorado que trabaja actualmente se pudo observar que existe una gran carencia ante este tema. Por esto, se propusieron diferentes actividades y una se llevó a cabo, haciendo ver y vivir que la música tiene una gran fuerza para trabajar el duelo con los alumnos.

*Educación, muerte, duelo, didáctica de la muerte, música*

Through this work, the presence of death in the field of education was studied. To do this, an investigation was first made about the death and the grieving process that it causes and the relationship that exists between death and education as well as with music. Afterwards, the reality was analyzed using a survey and with the answers received from teachers who are currently working, it was observed that there is a great lack of this issue. Taken this into account, to be able to give a solution, different activities were proposed and one of them was carried out by seeing and living that music has a great strength to work grief with students.

*Education, death, grief, didactic of death, music*

## **SARRERA**

Bizitzan zehar, guztiok izan dugu heriotzarekiko kontakturen bat. Gehiengo bati, txikitan aiton amona edota gurasoren bat hil zaio, beste batzuei osaba edota izebaren bat, lagun baten ama edota maskotaren bat. Guztiok bizi izan dugu heriotza noizbait, baina nola tratatzen dugu gaia gure inguruan? Esan bezala, jakina da heriotza oso ezaguna dela guztiontzat baina gizartean, gaia isilean mantentzen da, inolako lanketarik egin gabe, sentimenduei hitzik jarri gabe, egoerari ahotsik jarri gabe, isilean sufrirituz. Bakoitzak heriotzari aurre egiteko bide propioa eraiki behar izaten du, bere usteetatik abiatuz eta bidea ahalik eta hoberen eginez. Isiltasun honetan gainerako laguntza ukatzen dugu, bidea bakarrik eginez, horrela bizi izan delako eta horrela bizitzen erakutsi digutelako. Heriotza nola bizi ikusi dugunetik eta bizipenetatik ikasi dugu eta hau guztia ondorengo belaunaldiei transmititzen diegu, orain arte aipatutakoa indartuz eta mantenduz.

Gradu amaierako lan honen bitartez, egun gizartean heriotzari ematen zaion trataera aldatzea da helburu nagusia, irakasleei egoerari aurre egiteko erabilgarria suerta dakiekeen material bat aurkeztuz. Horiek horrela, heriotza bera teorikoki aztertuko da, dolu prozesua behatuz eta Lehen Hezkuntzako ikasleek bizi ditzaketen egoerak ikertuz. Lan guztiaren oinarrian musika egongo da, baliabide hau izango baita aldaketarako gakoa eta ondorengoa izango da lortu nahi dena: ikasleak dolu prozesu baten baitan musikaren bitartez laguntzea eta aurrez esan bezala, irakasleentzako material bat aurkeztea, antzeko egoerei aurre egiteko.

Esanak esan, ondorengo atalek osatuko dute lan idatzia. Batetik, lanaren justifikazioa txiki bat azalduko da, ondoren, marko teorikoa plazaratuko da, non aipatu berri diren arlo guztiak sakonago aztertuko diren. Jarraian, alderdi praktikoari emango zaio bide eta lehenik eta behin, burututako ikerketa adieraziko da. Ikerketa laburbiltzeaz gain, lortutako emaitzak ere plazaratuko dira eta azkenik, lortutako eta ikertutako guztia kontuan izanik sortutako materiala adieraziko da eta lan guztiaren ondorioak ere plazaratuko dira.

## **JUSTIFIKAZIOA**

Aurreko atalean azaldu bezala, inguruko baten heriotza eta horren ostean bizi izan ohi dugun dolua, isilean bizitzen dugun prozesua izan ohi da. Zehazki, inguruan

izandako eta baita nik neuk bizitako esperientzia pertsonal baten ondorioz, isiltasun honek duen garrantzia ikusi, sentitu eta bizi izan dut, guzti honek ekartzen dituen ondorio guztiez jabetuz. Hortaz, hau esanik eta lan honen helburu nagusia argi izanik, hurrengo lerroetan heriotzari aurre egiteko material bat proposatuko da, musika ardatz izanik eta ikasleen ongizatea bilatuz, arlo guzti honetan txikienak baitira babes zein baliabide gutxien dituztenak.

## 1. MARKO TEORIKOA

### 1.1 Dolua

Heriotza historikoki gure inguruan izan dugun gertaera bat da. Azken urteetan, tabu gisa definitutako eta tratatutako gaia izan da, baina Gala, Lupiani eta Díaz-ek (1991) aipatu bezala, historian zehar heriotza ikuspuntu ezberdinetatik ikusia izan da. Esaterako, Antzinako Grezian, Erroman edota Erdi Aroan, bizitzaren amaiera logikoa edota onargarria zen prozesu gisa ikusten zuten. Are gehiago, Erdi Aroan, heriotza gertakizun publiko zein ospetsua zen eta hiltzen ari zen pertsona protagonista izanik, era zintzo batean bere bizitzaren balioa erakusteko aukera zuen (Gala, Lupiani, Raja, Guillén, González, Villaverde eta Alba, 2002).

Garai historiko bakoitzean ikuspuntu ezberdinak egon arren, heriotzak ondorio bera dauka kasu guztietan: amaiera. Akabera honek, banaketa bat ekartzen du, betirako emango den aldentze edota galera bat. Bisquerra-ren (2011) hitzak oinarri harturik, galera hau esanguratsua eta garrantzitsua denean (heriotzak eragindakoa), gertakizuna sufritu dutenen bizitzaren jarraikortasuna erroetik mozten da eta burmuinak denbora bat behar du egoera berriari aurre egiteko. Denbora honi dolua deritzo.

Beraz, galera baten aurrean egoera berriari aurre egiteko beharrezkoa den denbora dolua da. Maite dugun pertsona bat galtzerakoan, denbora tarte horretan tristura, beldurra, nahasmendua edota zalantza bezalako sentimenduak sentitu ohi dira eta bizitzan zehar pertsona guztiek bizi izaten dituzte antzeko egoerak, baina zer gertatzen da prozesua bizitzan duena neska edota mutil gaztetxo bat denean? Nola bideratu sentimendu guzti hauek? Guillén, Gordillo, Gordillo, Ruiz eta Gordillo (2013, 494. orr) ikerlarien hitzetan, ondorengoaren ematen da.

“Sabemos que cuando un niño hace una pregunta cualquiera, se suele referir a un suceso o a algo que ha observado, no obstante, cuando las preguntas se refieren a la muerte, en lugar de

respuestas sencillas y sinceras, provoca una aprensión indebida en el adulto, en lugar de la comprensión y el cariño que otras preguntas habitualmente desencadenan”.

Helduei, txikienekin heriotzaren inguruan mintzatzea oso zaila egiten zaie. Gainera, azken beldur honekin lotuta, denbora luzez umeei dolu prozesuak bizitzen ez zituztela pentsatu izan da, baina atxikimenduaren esparrutik uste horiek ezeztatu dira, adin txikienetatik helduek bizi ohi dituzten dolu prozesuak bizitzen baitituzte umeei (Romeo, 2011, 17.orr). Hau kontuan izanik, umeei heriotzaren inguruan hitz egitea beharrezkoa dela esan daiteke, izan ere, txikienek hildako pertsona betirako joan dela ulertu behar dute, hildakoa joatearen kausak ezagutu eta ulertu behar dituzte, hau da, ez dela boluntarioki joan eta aldi berean, agurtzeko aukera dutela ere argi izan behar dute. Hortaz, hau guztia argi utzi ahal izateko haurrak entzutea eta beraien egoera pertsonala ezagutzea beharrezkoa izango da.

Hitz egiterakoan, txikien ulermen gaitasuna kontuan hartu beharreko ezaugarria da, adinaren arabera pertzepzio ezberdin bat dutela jakina baita. Lehen urteetan, heriotza bera betirako dela ez dute ulertzen, hildakoa itzuliko dela uste baitute, nahiz eta hildakoarekiko duten aldentzea ulertzen duten eta hortaz, heriotzaren aurrean hartzen duten jarrera beraien jakintzen arabera izan ohi da. Hala ere, urteek aurrera egin ahala, 5-6 urteetatik aurrera, heriotza itzulerarik edota bueltarik ez duen gertakaria dela ulertzen dute eta aldi berean, beraiei gerta dakiekeen gauza bat dela konprenditzen dute. Poliki-poliki, sakontasun handiagorekin gaia ulertzen hasten dira. Etapa honetan, galdera asko sortu ohi dira, zalantza asko eta txikiek helduen dolu prozesuan ematen diren antzeko jarrerak hartzen dituzte eta baita emozio berdinak sentitu ere; hala nola, tristura, mina eta desanimoa. Ikastetxean errendimendu akademikoa jaitsi egin ohi da eta jarrera aldaketa bortitzak bizi ohi dituzte. Sentimendu zein emozio asko sentitzen dituzte eta guzti hauek azaleratzeko zein espresatzeko laguntza behar izaten dute, helduen laguntza (Markusen eta Fulton, 1971).

Egoera honen baitan, ikasleek Kübler-Ross-ek (1989) zehaztutako etapa ezberdinak bizi izan ohi dituzte. Lehenik eta behin, kolapso mental bat jasan ohi dute. Gertakariak ezagutzen duten bizitza guztiz aldatzen du eta egoera berriaren aurrean kolapsatuta edota paralizatuta geratzen dira. Bigarrenik, galdutako pertsona bilatzeko nahia sentitzen dute. Beraientzat garrantzitsua zen erreferentea galdu dute eta bakarrik sentitzen dira, galduta egoera berriari aurre nola egin jakin gabe. Hirugarrenik, nahaste zein etsipen sentimenduak bizi izan ohi dituzte. Orain arte ezagututako bizimodua

hankaz gora jartzen da gertakariaren ondorioz eta alde batera uzten dute guztia, etsia hartuz. Azkenik, berrantolaketa fasea emango litzateke. Azken hau dolu prozesuaren ondorio gisa ere ikusten da, gertakariari aurre egin eta biziari zentzu berri bat emanaz aurrera egiten duelako umeak.

Etapia hauetan guztietan zehar, txikienek helduen laguntza beharrezkoa izango dute. Hortaz, laguntza eskaini ahal izateko eta Romeo-ren (2011) hitzak berreskuratuz, haurrek dakitenetik abiatzea beharrezkoa izango da. Galderak erreminta garrantzitsua izango dira horretarako, dakitena edota sentitzen dutena ezagutzeko aukera eskaintzeaz gain, txikiek noraino iritsi nahi duten ere jakin ahalko delako. Aldi berean ere, sentitzen duten hori azaleratzen lagundu behar zaie, sentimenduak lasaitasun osoz adieraz ditzaketela argi utziz edota negar egiteko aukera eskainiz. Egoerari aurre egiteko erreferenteak behar dituzte eta helduek hori kontuan izan behar dute laguntzerakoan, maitasun eta inguru seguru baten beharra baitute umeek. Beraz, sentitzen dutena presente izanik, sentimenduak lasaitu eta bizitzarekin aurrera egiten lagundu behar zaie.

Sentimenduak edota beraien egoera ezagutu eta adierazten laguntzeaz gain, gertatutakoa egoki ulertaraztea beharrezkoa izango da. Aurrez aipatu moduan, adinaren arabera txikien ulermen maila ezberdina izan ohi da. Horiek horrela, gertatutakoak atzera bueltarik ez duela argi izan behar dute, baina bizimodu berrian aldentutako pertsona integrazteko aukera ematea garrantzitsua ere izango da. Esaterako, agurtzeko burutzen diren erritualetan parte-hartzen uztea aukera egokia da horretarako. Izan ere, askotan txikiak gehiegi babestu ohi dira eta honek emozionalki beharrezkoa duten komunikazioa deuseztatzen du, barruan dituzten emozio guztiak kudeatzeko aukerarik ez dutelarik (Fleming-Holland, 2008).

Galdera hauez gain, galeraren edota gertatutakoaren inguruan daukagun informazioak ere dolua bera nolakoa izan daitekeen zehazten lagundu dezake. Zehaztu ahal izateko, ondorengoak hartu beharko ditugu kontuan: hildakoa nor zen, atxikimenduaren ezaugarriak, heriotza mota, aurrekari historikoak, pertsonalitatearen aldagaiak, aldagai sozialak eta bestelako aldibereko estresak (Neymer, d.b.).

Aipatu bezala, haurrekin heriotzaren inguruan hitz egitea beharrezkoa da, diskurtsoa bere ulermenaren arabera moldatua izan beharko delarik. Hala ere, hau ez da lan erreza izango, Fleming-Holland-ek (2008, 11.orr) aipatzen duen moduan:

“Ayudar a un niño a enfrentar la muerte es difícil, y dado que cada niño lo enfrenta de manera única, no se puede pretender que existan reglas generales. Sin embargo, sí existen unas cuantas reglas de salud emocional aplicables al duelo o la curiosidad infantil por la muerte: 1) siempre contestar cualquier pregunta clara y verdaderamente, de manera tan directa como se pueda; 2) no se evite el tema de la muerte ni se evite asistir a una funeraria; 3) no deben cerrarse las puertas a dudas, preguntas y diferencias de opinión; 4) No desanimar la expresión emocional de congoja; 5) no hay que decir al niño cosas que luego tendrá que desaprender; hay que evitar cuentos de hadas, medias verdades o enredos. Evitar también el lenguaje figurativo; 6) evite abstracciones; 7) no tener miedo a expresar las propias emociones; 8) hablar a las emociones del niño y no a su intelecto; 9) recordar que el proceso de duelo y el ajuste a la muerte dura más que los funerales; 10) tener presente que existen profesionistas que pueden ayudar en el duelo infantil”.

Honen bitartez, Neymer-ek (d.b.) adierazi bezala, umeak aipatutako hamar pausuetara bideratu behar ditugu dolu prozesura edota galerara moldatu ahal izateko. Eman beharreko pausu horiek ondorengoak dira: galera txikienak ere seriotasunez kontuan hartzea, sentitzeko denbora hartzea, estresa deskargatzeko formak aurkitzea, galerari zentzua ematea, norbaitengan konfiantza izatea, gainerakoak kontrolatzeko beharra alde batera uztea, galera guretzat zentzua duen era batean erritualizatzea, aldaketari erresistentziarik ez ezartzea, galeratik zer o zer ateratzea eta bakoitzaren konbikzio erlijiosoetan zentratzea.

Hitz egiterakoan umeari helarazten zaion egoerak heriotzaren inguruan duen pertzepzioan eragiteaz gain, gaiarekiko izango duen interesean ere eragingo du, galdera gehiago egingo edota interes gehiago adieraziko duelarik. Hortaz, haurrak helduen moduan gaia ulertzeko gaitasuna duten pertsona gisa ulertzea beharrezkoa izango da eta egiazkoak zein zintzoak diren iritziak eta azalpenak beharko dituzte. Honen bitartez, dolu prozesua gainditzeko pasatu beharreko etapa guztietan aurrera egiten lagunduko zaie, txikitan bizitzen duten dolu prozesu egoki bat, etorkizuneko beste dolu prozesuetan lagungarria izango delarik. Izan ere, txikienak ahulagoak eta sentiberagoak dira prozesu honekiko, beharrezko defentsa guztiak garatuta ez dituztelako eta laguntza beharrezkoa dute prozesua egoki igarotzeko eta etorkizunekoei aurre egin ahal izateko. Hala nola, txikien %40ak etorkizunean bizitutako doluaren ondorioz trastorno ezberdinak izan ohi ditu etorkizunean (Guillén, Gordillo, Gordillo, Ruiz eta Gordillo, 2013, 497. orr).



## 1.2 Doluaren lanketa hezkuntzan

Dolu prozesua bere baitan azaldu ostean, hezkuntza eremura salto egitea beharrezkoa da, umeei galera garrantzitsu bat bizitzerakoan, familia eremuan espresatu ostean, ikastetxean adierazten baititu azken egoera honi dagozkion sentimendu zein emozioak. Hortaz, gelan egoeraren lanketa nola egin behatu beharko da eta ikasleari egoerari aurre egiten lagundu. Lanketa hau tutoreari egitea dagokio, izan ere, ikaslea hobekien ezagutzen duena da eta aldi berean, familiarekin zein umearen binkulu handiena duena. Beraz, Kroen-ek (2002) esan bezala, salbuespenak egon daitezkeen arren, “hezkuntza akonpainamendua” tutoreak egin behar du. Hala ere, baliteke egin beharrekoa egoki ez ezaugutzea. Beraz, zer dagokio tutoreari?

“Toda persona en general y los niños en particular sienten en torno suyo un círculo afectivo de seres queridos y cercanos de referencia, que son esenciales para su equilibrio personal y su vida actual y futura. ¿Qué puede hacer un tutor cuando ese círculo es abierto o es roto por la muerte de alguna de ellas? Lo habitual es remitir al orientador/a, que suele ser una figura desconocida para el niño y con la que antes no existía ninguna clase de vínculo. No creemos que sea ésta la mejor opción, que consideramos una alternativa espontánea o tradicional. Y no la consideramos la más adecuada por varias razones: 1) La principal es la falta de vínculo afectivo a priori con el niño y sus padres. 2) Existe una preparación específica insuficiente en el colectivo de orientadores. 3) Los niños y los adolescentes, con un acompañamiento adecuado, pueden y tienden a superar su duelo en un tiempo prudencial. 4) Se trata de un modelo de intervención contrastado que asocia un desenlace positivo en la mayor parte de los casos. Todo ello nos anima a expresarlo y a someterlo a debate, tanto con la comunidad académica como profesional.” (De la Herrán eta Cortina, 2008, 157. orr).

Azaldu berri bezala, tutorearen ardura izan arren, laguntza zein orientazioa beharrezkoak izango ditu erronkari aurre egin ahal izateko eta informazio bilaketa ezberdinak ere burutu ditzake zer egin jakiteko. Hala ere, tutoreak ondorengoak izan beharko ditu kontuan lan egiterako orduan: gelan egunerokotasuna malgutasunez mantentzea, gurasoekin edota umearen tutoreekin komunikazio erregular bat izatea, ikasleak beharrezko dituen laguntza gehigarri guztiak eskaintzea edota gainerako ikasleak ere egoera berrirako prestatzea, azken hauen konpromezua ere garrantzitsua izango delako. Hau guztiagatik, ikastetxea galera bat bizi duen ikasle batez arduratzen denean eta ikaskideak azken hau ulertzera zein laguntzera animatzen dituzenean, hezkuntza zeregin garrantzitsu bat egiten ari da (Guillén, Gordillo, Gordillo, Ruiz eta Gordillo, 2013, 498. orr).

Esanak esan, emaitza egoki bat lortu ahal izateko edota jarduna egoki burutu ahal izateko, irakaslearen formakuntza beharrezkoa izango da. Heriotzaren inguruko

formakuntza honek bi helburu nagusi ditu: batetik, gertakariaren ondorioaren inguruko eta umeen ahultasunaren aurrean heldutasun pertsonalari mesede egitea eta bestetik, hartu beharreko hezkuntza rola indartzea. Modu honetan, heriotzak eragiten duen deserosotasunari nola aurre egin jakingo dute, enpatizatzen eta beraiek heriotzarekiko senti dezaketen ezkortasuna gaindituko dute, jarrera zein gaitasun hauek ikasleei transmititzeko gai izango direlarik.

Beraz, formakuntza honen bitartez, De la Herrán eta Cortina-ren (2008) arabera, irakasleak prest egongo lirатеke “hezkuntza akonpainamendu” egoki bat burutu ahal izateko azken honen baitan, ikaslearentzat espresatzeko bide berriak irekiz, edozein espresio mota errespetatuz (baita ezer ez espresatzea ere), edozein momentutan laguntza eskatzeko aukera luzatuz, prozesu guztia hurbiletik jarraituz, ikaslearen autonomiari mesede eginez eta guzti hau denboran luzatzen dela ziurtatuz, gertakariaren momento zehatzera mugatu gabe. Laburbilduz, hartzaileak eta abegitsuak izanik irakasleak.

Aurretik esan bezala, txikienak babesteko helburuarekin gertakaritik alden du egin ohi dira, beraien parte-hartzea mugatuz eta beraiengan egoerarekiko ideia okerrak sustatuz. Gainera, gertatuakoarekiko ezkortasuna ere garatzen dute eta egoerari aurre egiteko gai ez direla sentitzen dute honen ondorioz, doluaren garapena oztopatzen delarik. Honen ondorioz, Feijoo eta Pardo-k (2017) dioten moduan, ikasleek heriotzaren inguruan ikasteko aukera izan behar dute eta horretarako, irakasleek umeen egunerokotasunean ematen diren egoera ezberdinak aprobetxa ditzakete, heriotzaren inguruko kontzeptu ezberdinak landu eta honen inguruan senti ditzaketen sentimendu ezberdinak lantzeko.

Heriotzaren inguruan ikasleekin lanketa egiterako orduan, azken hauen pentsamenduaren literaltasuna dela eta, eta heriotzaren inguruko beldurrak ekiditeko asmoz, Kroen-ek (2002) gomendatzen duen bezala, ikasleekin gertakariaren kausak landu beharko ditu irakasleak, kausa hauek exageratu egiten dituelarik; hala nola, “oso oso zaharra” zegoelako hil egin dela esanez. Modu honetan, ikasleak heriotzaren kausak ulertuko ditu eta kausa hauek beregandik oso urrun daudela ohartuko da.

Gaia gelan txertatu aurretik, irakasleek beraien artean hitz egin beharko dute, gaia ikasleekin era natural zein ireki batean landu ahal izateko. Hortaz, ikasle askok horrelako galerak bizi dituztela onartu beharko dute eta azken hauek izango dituzten erreakzioak anitzak izango direla kontuan hartu. Bizitzan ematen den gertakari natural

bat bezala aurkeztu behar da, prozesua mingarria dela baina pertsona gehienek arazorik gabe garaitzen dutela adieraziz. Ikasle taldea behatu beharko da, noraino heldu nahi duen jakin ahal izateko, ikasleen baitan laguntza eskatzen dutenaren seinale ezberdinak bilatu behar dira eta ikasleak lasaitu eta beraiei entzuteko prest dagoen konfiantzazko aukera guztiak eskainiko zaizkie gelan ondorengoa lortuz: konfiantzazko egoera bat non ikaslea ulertua sentituko den eta espresiora behartua ez den izango, izan ere, dolu prozesua egokiago garatzen da ulermena, konpainia eta laguntza egokia tarteko direnean.

Ikaste taldea edota gela egoerara moldatzeaz gain, tutorea ere heriotza hurbiletik bizi izan duen ikaslearekin bilduko da. Askotan ikasleek beraien gaitasunekiko konfidantza txikia izan ohi dute, baina beldur horiek alde batera utzi eta egoeraren baitan aurrera eginez ikaslea lagundu behar dute (De la Herrán eta Cortina, 2006). Elkarrizketa honen baitan, ikasleak sentitu dezakeenarekiko errespetu osoa adierazi beharko du irakasleak eta esaten zein adierazten duena atentzio osoarekin entzun. Uneoro egoerarekiko interesa adierazi behar du irakasleak, interes egiatia eta denboran zehar luzatuko dena. Horiek horrela, elkarrizketa lasai eta laburrak izango ditu irakasleak ikaslearekin, helburua akonpainatzea izango delarik. Irakaslea emozionalki inplikatu beharko da eta zer esan ez jakiterakoan argi izan behar du egotearekin bakarrik laguntza handia eskaintzen duela. Ikaslearen sentimenduak onartu zein entzun behar ditu eta erantzun guztiak ez dituela argi izan behar du (Feijoo eta Pardo, 2017, 71 eta 72. orr). Beraz, ez jakintasun hori adieraztea ere lagungarria suertatuko da.

Aipatu bezala, hezkuntzak jardun garrantzitsua du heriotzari eta honek eragiten duen dolu prozesuari dagokionean. Ikasleei errealitateaz zintzotasunez hitz egin behar zaie, ulertu dezaketen moduan argi utziz heriotza bueltarik gabeko gertaera dela. Ikastetxean ikaslearen barruko eboluziotik hasiko da lanean, kanpoko gerora lantzeko eta hau burutu ahal izateko beharrezkoa da hezkuntza talde osoak norabide berdinean lan egitea informazioa tratatzerakoan, momentuko akzioetan, akzio gehigarrietan eta baita ebaluazioari dagokionean ere. Egun, gai honekiko hutsune handiak daude hezkuntzan eta hauei erantzun behar diete irakasleek gaiarekiko duten beldurra alde batera utziz, esperientzia pertsonalean oinarritutako aurreiritziak aldentuz eta prozesuan ikaslearen inguruaren parte-hartzea sustatzen dutelarik (García eta Aura, 2010, 95-97. orr). Ikasle guztientzako baliagarria den errezetarik ez da existitzen, baina

egoera bakoitzaren atzean irakasleak zer egin jakin ahal izateko burutzen duen informazio bilaketa lagungarria suertatuko da.

### 1.3 Musikaren erabilera dolu prozesuan

Heriotza baten ondorioz umeei sentitzen dituzten emozio zein sentimendu guztiak espresatzen lagundu behar zaie eta horretarako taldeko edota bakarkakoak zein simboliko kreatiboak diren ariketak, artea esaterako, aukera lagungarriak dira. Izan ere, arteak, dramatizazioak, musikak edota eskulanek emozioak askatzeko bideak aktibatu ditzakete. Aukera horien guztien artean, musika baliabiderik indartsuenetarikoa da emozioekin zuzenki lotuta dagoelako Juslin eta Sloboda-k (2001) adierazi bezala. Hurrengo lerroetan irakurri daitekeen bezala, emozioen eta musikaren arteko lotura betidanik aztertu izan den lotura bat da.

“Musikak emozio indartsuak eragiten duenaren errealitatea, Antzinako Greziaz ikertzaile eta aditu ezberdinak erakarri dituenak, misterioa bat da oraindik ere. Zergatik erantzuten diogu musikari emozio ezberdinekin gure bizitzako helburuen baitan musikak inolako garrantzirik ez badu? Soinu soil batek nola erakarri gaitzake? Entzuleen baitan musikak emozio ezberdinak zergatik eragiten dituen azaltzea oso garrantzitsua da, baliabide hau gure gizarteko arlo ezberdinetan erabiltzen baita emozioak plazaratzeko duen eraginkortasunagatik” (Juslin eta Sloboda, 2001, 3. orr).

Musika eta emozioen artean ematen den lotura egun oraindik aztertzen den aspektu bat izan arren, argi dago musika sentimenduekin konektatzeko, hauek espresatzeko zein hitzik gabe etiketatzeko erraminta indartsua dela. Izan ere, “la música es un elemento nada invasivo que funciona para toda las personas independientemente de su edad, género y nacionalidad. Entre los diversos beneficios se encuentran: expresar emociones, aumentar la autoestima, mejorar habilidades sociales y de comunicación, facilitar estímulo sensorial, acompañar en el proceso del duelo y facilitar la realajación y/o disminuir el dolor” (De Jong, 2017). Are gehiago, musika eta emozioen artean dagoen erlazioa anitza eta konplexua da, askotan musikaren esperientzia bereizgarriaren bitartez adierazten delarik.

Beraz, Gaston-ek (1957) dioten moduan, musika forma antolatu eta estrukturatua duena eta osatzen duten ezaugarrien artean (erritmoa, melodia, bolumena eta kalidade tonala) ematen diren erlazioen ondorioz espresatzeko aukera infinituak dituen soinu ezberdinak elkartzearen eta interpretatzearen artea bezala definitu arren, “La música, ante todo, se concibe como un sentimiento, incluso una forma de vida en muchos casos,

y, a lo largo de los tiempos, ha estado muy presente en toda clase de contextos sociales, ocupando en numerosas ocasiones un lugar importante dentro de la vida de las personas” (Gutierrez, 2018, 23 eta 24. orr). Arte dinamikoa da, bere ezaugarri nagusien artean sorrarazten dituen emozioekin lotutako erantzun kinestesikoak daudelarik. Gainera, aspaldian gizakiok izandako behar bat asetzen du: bizitzari zentzu bat ematen laguntzen du eta baita galdutako baloreak berriro ezartzen. Bakoitzaren autoulermenean ere laguntzen du eta mingarria den esperientzia baten aurrean, min hori arintzen laguntzen du, esperientzia positiboagoa bilakatzeko gaitasuna duelarik.

Hillecke, Nickel eta Bolay-k (2005) musikak pertsonengan dituen bost indargune aipatzen dituzte. Batetik, musika era zuzen eta eraginkor batean antzematen dela diote. Bigarrenik, aldarrean eragiten duten eta esperientzia ezberdinekin lotutako emozioak espresatzeko bidea irekitzen du musikak. Hirugarrenik, musikaren ulermenak esperientzia zein ulermen subjektiboaren zabaltzea eragiten du. Laugarrenik, mugimenduekin estuki atxikitzen da, akzio zehatzak burutzera bultzatzen duelarik eta azkenik, bosgarrenik, pertsonen arteko komunikazioa hobetzen lagundu dezake.

Umeen eboluzioan edota garapenean zentratuz, parametro musikalak (erritmoa, intentsitatea, tinbrea eta altuera) estuki lotuta daude azken honi eta hau horrela izanik, musikaren bitartez bideratutako lanketa sormentsuek emaitza egokiak ematen dituzte, askotan txikienezako hitzez azaltzea zaila den hori musikaren bitartez adierazteko aukera izaten dutelako (De Jong, 2017). Beraz, musika hitzak baino haratago doala argi ikus daiteke sentimendu anitzak azaltzeko aukera ematen duelako, lotura interpertsonalak zein interbentzio zehatzak burutzeko erraminta erabilgarria delarik, guztiak musikalak baikara.

Baina, zergatik esaten da denak musikalak garela? Musikak pertsona gehiengoan bizitza pertsonalean zein sozialean presentzia handia dauka. Hau horrela izanik, entzule bakoitzak musika entzuterakoan zentzu ezberdin bat emango dio azken honi, izandako esperientzien arabera izango delarik zentzu hori. Hortaz, kontestuak ikaragarriko eragina izango du azken honen baitan eta baita entzuleak dituen jakintza zein entzuteko ohitura musikalak ere. Dena den, jakintza musikal minimoak izan arren, entzuleak entzundakoaren antolamendua identifikatzeko gaitasuna du eta entzundakoari erantzungo dio zuzenean, sentimendu eta emozio zehatz batzuk piztuko zaizkiolarik, estrukturaren edota kontrasteen zergatia ulertzen ez duen arren.

Musika beraz, ahotsaren, gorputzaren zein instrumentuen bitartez adierazi daitekeen artea da, inolako erreferentzia edota kanpo esanahirik gabe espresio forma anitzak sortzeko aukera eskaintzen duena. Gainera, emozio zein sentimenduekin duen konexio horren garapen gisa ikusten da musika, momentuko esperientziak eta emozioak lotzen baititu. Esanahiari dagokionean, eztabaidatua izan den gai bat da, baina musikaren esanahia musikan bera dago (Bernstein, 2002), kontestu kulturalaren eta entzulearen esperientziaren menpe dagoelarik. Hortaz, emozioak adierazi edota pizten dituen bezala, kontzeptu, egoera edota objektu abstraktuak azaltzeko aukera ematen du.

Musikaren alderdi espresiboaren bitartez, musikaren ezaugarri hauek bereizi ahal ditugu; hala nola, musika alaia, tristea, nostalgikoa, maitasunezkoa... Dimentsio hau berezkoa da, musika entzuten dugun momentuan zentzu hauek edota ezaugarri hauek identifikatzen ditugularik. Beraz, entzuterakoan emozio hauek identifikatu eta pertzibitzen ditugu, entzuten ditugun soinuak eta emozioak ezin ditugularik banatu eta pertzepzio esanguratsu bat aurrera eramaten dugularik. Hala ere, emozioen eta musikaren ezaugarri espresiboaren artean lotura estu bat dagoela ematen duen arren, oso lotura konplexua da eta emozio horiek norabide asko izan ditzakete. Esaterako, emozio bera modu ezberdinetan adierazia izan daiteke konposagile ezberdinen eskutik (Gomila, 2008, 2. orr).

Entzuterakoan, erreakzioak ere entzundako musikaren arabera dira. Izan ere, tristura edota alaitasuna adierazten duen obra baten aurrean, pertzibitutakoaren ondorio dira, orokorrean, erosotasuna, debozioa edota mirespena bezalako emozio zabalak eragiten dituelarik emozio definituak beharrea. Gainera, “la disposición anímica suscitada en el auditor puede ser de importancia en la receptividad, la preferencia y el agrado por ciertos tipos de música” (Marinovic, 2017,70). Honen harira, aipatzekoa da, garapen erritmiko, melodiko edota armoniko bat duten obretan ematen diren aldaketak, emozionalki eragiten dutenak, errezago pertzibitzen direla, garapen zehatzik gabeko obretan baino.

Beraz, emozio hauen pertzepzioa oinarri harturik eta doluari erreferentzia eginez, tristura ekiditeko musikarik egokiena alaia, energikoa eta erritmikoa dena da, mugimendua eta dantza eragiten dituena bere baitan. Esaterako, errepertorio klasikoari erreferentzia eginez, “se podría utilizar el Concierto para piano nº 5 (Rachmaninov), la Sinfonía nº 8 (Dvorak) o el Concierto para violín (Beethoven). No obstante, también

hay muchos otros estilos musicales de ritmo muy marcado, como el flamenco, la música latina, etc. que serían válidos en el tratamiento de estos problemas” (Gutierrez, 2018, 30).

Musikaren entzuketa eta interpretazioa esperientzian oinarritzen dira. Horregatik, esperientzia edota bizipen negatiboak esperientziaren bitartez ekidin edota arindu behar dira hurrengo ulertarazi behar dela argi izanik: ongizatea areagotu egiten da eta beherakadak ekiditen ditu. Musikaren bitartez, ondorengo teknikak erabili ditzakegu egoera negatiboari aurre egin ahal izateko: abesti bat idatzi edota aurkeztea, instrumentuak jotzea edo horiekin inprobisatzea edota entzuketaren bitartez erlajazioa zein imajinazioa bultzatzea (De Jong, 2017).

Doluaren baitan, geldotasuna eta leuntasuna daude, erritmo erregularrak eta beheranzko inflexio melodikoak. Musikagile askok hau kontuan izaten dute emozio bat adierazi nahi dutenean ezaugarri zehatz batzuk erabiltzen dituztelako. Esaterako, tristura adierazi nahi badute, modu minorra erabiltzen dute. Honen ondorioz, entzuleak jakintza musikalik izan ez arren, sentimendu edota emozio hauek pertzibitzeko gai izango da. Hala ere, guzti honen baitan ondorengo aintzat hartu beharko da:

“De todos modos, también será necesario tener en cuenta la relación entre expresión y significado en la música, es decir, el proceso por el cual los modos de la expresión se “socializan”, se vuelven convencionales, compartidos, desarrollándose de este modo códigos expresivos. Si la idea romántica de expresión consistía en la manifestación de lo interno, de desvelar un estado subjetivo privado, una concepción contemporánea de la subjetividad, pragmática, requerirá tener en cuenta la dimensión social de la subjetividad, su constitución en la expresión, su función de regulación de la interacción social, de indicación para la acción. Concebir la expresión como un modo básico de comunicación nos permite entender la aparición de códigos expresivos compartidos, lo cual genera una dialéctica insuperable y una angustia característica en el contexto artístico: la necesidad de ser auténtico pero comprensible, de ser original sin caer en las fórmulas establecidas, en los clichés” (Gomila, 2008, 5. orr).

## 2. METODOLOGIA

Marko teorikoan azaldu bezala, egungo hezkuntza sisteman heriotzari eta honek dakartzan ondorio guztiei tratamendu egoki bat emateko, pausu edota finkatutako ideia batzuk zehazki jarraitzea beharrezkoa dela ikus daiteke. Informazio eta prestakuntza egokiak izatea garrantzitsua da gaiaren lanketa sakon eta egoki bat burutu ahal izateko eta egun hezkuntzan dauden langileen artean prestakuntza zein informazio hori egokia

den edo ez egiaztatzea izan dugu helburu, ostera, hutsune bat izanez gero erantzun bat emateko.

Beraz, gaia bera teorikoki aztertu da lanaren lehenengo zatian eta ikerketa burutzeko asmoz, bigarren atal honetan, egun lanean dabiltzan hainbat irakasleei gai honen inguruko galdeketa bat luzatu zaie, non heriotzaren, doluaren edota azken hauen baitan izan dituzten esperientzia ezberdinen inguruan galdetzen zaien 10 galderen bitartez, errealitatea ezagutzeko asmoz. Azken hau interneteko “Google formularios” deituriko baliabidea erabiliz burutu da, Euskal Herriko irakasle ezberdinei galdeketa helarazi ahal izateko eta guztira, 379 irakaslek erantzun dute galdetegia, ikerketa bera esanguratsua izanik.

Irakasle guzti hauek emandako erantzunen bitartez errealitatea hurbilagotik ezagutu ostean, jarduera ezberdinak proposatu dira gaiaren tratamendu egoki bat aurrera eraman ahal izateko, horietako bat ere errealitateko gela batera eraman delarik bere baliagarritasuna egiaztatuz.

### **3. LANAREN GARAPENA**

#### **3.1 Inkestaren interpretazioa**

Esan bezala, gaiari errealitatean ematen zaion tratamendua ezagutzea oso garrantzitsua da eta horretarako, hezkuntza sisteman lanean dabiltzan irakasleei inkesta bat luzatu zaie (ikus 1. eranskina). Guztira, inkesta 379 irakaslek erantzun dute, gehiengoak emakumezkoak izan direlarik eta ia guztiak, 20-40 urte bitartean kokatzen dira. Dena den, erantzun duten irakasle gehiengoaren perfila antzekoa izan arren, denetarik erantzunak jaso dira.

Orokorrean, erantzun duten pertsonen erdiak heriotzarekin nolabaiteko kontaktua izan du gelan eta egoerari aurre egiteko gai izan direla sentitzen dute, baina gaiarekiko lanketak eta tratamenduak beharrezkoa duen presentziarik ez duela uste dute eta irakasleentzako baliabide edota laguntzen beharra sumatzen dute. Honekin batera, doluaren fase ezberdinen inguruan galdetzerakoan, gehiengoak hauek ezagutzen dituela aipatu du, baina hauen tratamendurako eta lanketarako baliabideen inguruan dituzten ezagutzak eskasak direla aitortu du gehiengoak eta formazio baten beharra ere salatu dute.



Irakasle guzti hauek emandako erantzunen bitartez eta errealitatearen azterketa bat eginez azken hau ezagutzeaz gain (ikus 2. eranskina), marko teorikoan bildutako informazioa berretsi ahal izan da eta hau oinarri izanik, ondoren aurkeztuko den jarduera ezberdinen proposamena sortu da, ikertutako hutsuneari erantzun bat emateko asmoz, irakasleei baliabide bat eskaintzeko musika oinarri izanik.

### 3.2 Materiala

Horiek horrela, guzti hau ikusirik eta Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusia kontuan izanik, hurrengo lerroetan heriotza batek eragindako dolu fase batean dauden ikasleei laguntzeko baliagarria izango den material bat aurkeztuko da. Material hau jarduera ezberdinez osaturik egongo da eta musika izango da protagonista guztietan.

#### 3.2.1 Materialaren aurkezpena

Esan bezala, materiala dolu fasearen baitan dauden ikasleak laguntzeko erabiliko da eta doluak berak dituen faseen arabera antolatua egongo da, fase bakoitzean egin daitekeen jarduera ezberdin bat aurkeztuz eta adieraziz. Aipatu beharra dago, ikasle bakoitzak erritmo pertsonal bat izango duela lanketaren baitan, beharrezko jarduerak edota fase batetik bestera pasatzeko beharrezko denborak oso ezberdinak izan daitezkeelarik. Gainera, honekin batera ere, ezin dugu ahaztu irakasleak eta gelako ikaskideek ere zer esan handia izango dutela lanketa guzti honen baitan. Beraz, guzti hauek esanik, eta jarduera bakoitza aldagarria zein moldagarria izan daitekeela argi utziz, ondorengoa da planteatzen den proposamena.

#### 1. Fasea: KOLAPSOA

Dolu prozesuaren baitan, umeez fase ezberdinak bizitzen dituzte. Guztira, lau fase aurkitzen ditugu dolu prozesuan eta jarduera honen bitartez, ikasleari lehenengo faseari aurre egiten laguntzea da helburu. Zehazki, lehenengo fase honetan, ikasleak kolapso handi bat izango du, gertatutako guztia asimilatzea zaila egingo zaiolarik. Hori horrela izanik, irakasle bezala kolapso edota sentitzen duen zurrunbiloa askatzen lagundu beharko diogu. Gainera, ikasleari talde osoaren babesa argi adieraztea oso garrantzitsua izango da eta hori egin ahal izateko, talde dinamika bat egitea planteatzen da, taldeak indar eta eragin handia izango duelako umearengan. Lanean aipatu bezala, musika izango da bidelagun eta hau horrela izanik, tertulia musikal bat burutuko da ikasleekin. Hala ere, ekintzarekin hasi baino lehen, irakasleak gelako giroa aproposena

dela ziurtatu beharko du. Horretarako, ikasleak borobilean kokatuko ditu guztiak elkarri ikusi ahal izateko eta dinamika hasi aurretik, bera ere ekintzan bat gehiago izango dela argi utziko du.

Behin hau guztia eginda, jarduera berari hasiera emango dio. Lehenik, ikasleei fitxa moduko bat banatuko die, non tertulia burutzeko erabiliko duen Lourdes Iriondo eta Xabier Lete-ren “Ez nazazu utzi” abestiaren letra bera agertuko den, baina hutsunez beterik (ikus 4. eranskina). Irakasleak, abestiaren letra osoa (ikus 3. eranskina) eta azken honen inguruko zenbait galdera ezberdinak prest izango ditu dinamika gidatu ahal izateko. Fitxa guztiak banatuta, abestiaren entzunaldia egingo dute hainbat aldiz. Entzunaldien bitartez, fitxan dagoen letrak dituen hutsuneak bete beharko dituzte ikasleek, entzunaldi aktiboa egingo dutelarik eta letra guztia idatzita eta zuzenduta izan ostean, irakasleak abestiaren inguruko zenbait galdera egingo dizkie ikasleei:

1. *Zein instrumentu entzuten ditugu abestian?*
2. *Eta ahotsak? Zein motatakoak?*
3. *Nolakoa da melodia? Eta erritmoa? Eta melodia ezberdinen altuera?Eta intentsitatea?*
4. *Zer transmititzen dizue abestiak entzuterakoan? Zer sentitzen duzue?*
5. *Zer dio letrak? Zer esan nahi dute abeslariak?*
6. *Zuek partekatu nahi duzuen esperientziarik badaukazue?*

Galdera hauen bitartez, irakasleak tertulia bera gidatuko du eta dolu prozesua bizitzen ari den ikasleari bere bizipenak kontatu eta partekatzeko aukera emateaz gain, musikalki identifikatua sentitzeko aukera ematen diogu eta baita antzerako esperientzia bat bizitu edota bizitzen ari den bakarra ez dela ikusteko aukera eskaini ere, kolapsoa askatuz.

## 2. Fasea: GALDUTAKOA BILATZEKO NAHIA

Lehenengo fasean bizi izandako kolapsoa askatuta, ikaslea galdutakoaz kontzientzia hartzen hasiko da eta hori bilatzeko nahia sentituko du, oso esanguratsua zein beharrezkoa zelako berarentzat eta galtzea oso mingarria. Hortaz, ikasleari galdutakoaz kontzientzia sakonago bat hartzen lagundu behar diogu, inguruan duenaz

ohartaraziz. Hau da, galdutakoa oso garrantzitsua dela eta honen eraginaren inguruan hausnartzen lagundu behar diogu, baina aldi berean, daukanaz jabetu behar dela sentiarazi behar diogu.

Hau bideratu ahal izateko, beste behin ere talde dinamika bat planteatuko da, inguruan daukanaz jabetzeko taldeak zer esan handia izango duelako. Beraz, adiskidetasunaz, familiaz, inguruaz... mintzatzen diren abesti ezberdinak (ikus 5. eranskina) entzun zein abestuko dira gelan eta ikasleek askatasun osoa izango dute nahi dutena egiteko. Hau da, beraien artean nahastuz, hitz eginez, ukituz... bata besteari abestiak dionean transmititu beharko diote eta modu honetan, dolu prozesuan dagoen ikasleak galdutakoa galdu duela barneratuko du, baina inguruan duenaz konturatuz eta ohartuz hutsune hori beteko du. Gainera, jarduera honetan ere irakasleak ikasleen maila berean parte hartuko du eta talde hurbilagokoa eta lotuagoa bilakatzen saiatuko da.

### 3. Fasea: NAHASTEA

Prozesu osoan zehar, ikasleak emozio, sentimendu ezberdinak bizi izan ditu eta poliki-poliki lorpen ezberdinak burutu ditu, hirugarren faseraino heldu delarik. Hala ere, bizipen hauek guztiak nahasmen egoera batera eramango dute. Berarentzat garrantzitsua zen norbait agurtu behar izan du eta bakarrik ez dagoela ikusi du, inguruan duen gauza guztiez jabetuz, baina oraindik ere beharrezkoa zuen hori ez du ahaztu eta ez du ahaztu nahi. Nahasmen handia izango du bere barruan eta irakasleak nahasmendu hori antolatzen lagunduko dio.

Horretarako, lehenik eta behin berarekin bakarkako elkarrizketa bat izango du. Ikasleari sentitzen duenaz, pentsatzen duenaz... galdetuko dio eta sentimendu edota emozio ezberdinak identifikatuko dituzte eta aldi berean, ikasleak nahasmendu guzti hori husteko aukera izango du. Behin elkarrizketa sakon eta bakarkakoa amaierara heltzean, irakasleak aipatutako sentsazio edota emozio bakoitzari melodia bat, dantza bat... jartzeko aukera emango dio. Beraz, musikak eskaintzen dizkion baliabide ezberdinak erabiliz, ikasleak sentitzen duen nahasmen guztia ateratzeko, adierazteko eta husteko aukera izango du, guztia plazaratu ostean nahasmendua antolatu duela sentituko duelarik.

4. Fasea: BERRANTOLAKETA

Orain arte egindako lan guztiaren ostean, dolu prozesuan aurrera egingo du umeak eta orain arte sentitutako emozio, sentimendu, sentsazio... guztiak berrantolatuta sentituko ditu. Galdutakoaz kontziente izango da eta ez du inoiz ahaztuko, baina egin beharreko azken pausura iritsiko da eta aurrera egiteko gogoak eta grinak sentituko ditu. Hortaz, ikaslearen baitan grina hori pizteko eta guztia berrantolatzeko, bakarka burutu beharko duen ariketa bat planteatzen da.

Kasu honetan, ikasleak askatasun osoa izango du nahi duena sortzeko. Hau da, musika oinarri duelarik, abesti bat, konposizio instrumental bat, bertso bat... nahi duena sortu dezake, azken hauen bitartez nahi duena adierazteko aukera izango duelarik; hala nola, prozesu guztian zehar bizitutakoa, bere baitan eman den aldaketa edota eskerrak ematea gainerakoei emandako laguntzagatik. Gainera, nahi izanez gero ere gainerakoen aurren egindakoa aurkezteko aukera ere izan dezake. Askatasun osoa izango du adierazi nahi duen hori lau haizetara zabaltzeko eta prozesu osoan zehar emandako pausu eta burututako lorpen guztiak antolatuko dira, azken fase honek dioen moduan, bere baitan berrantolaketa bat emanaz.

## 3.2.2 Lehenengo fasearen bizipena

Aurrez aipatu bezala, planteatutako jardueren eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko, lehenengo jarduera praktikara eraman da, tertulia musikala zehazki. Hau burutu ahal izateko, Lehen Hezkuntzako 3. Mailako gela bat erabili da. Gela 27 ikaslez osaturikoa da, 16 neskez eta 11 mutilez zehazki eta orokorrean talde izaera handia dagoela esan daiteke, ikasle asko izan arren elkarren artean harreman oso estuak dituztelako.

Saioa bera aurrera eraman ahal izateko, ikasleen mahaiak gelako hormen kontra jarri eta ikasle guztiak borobil batean kokatu dira, guztiak bata besteari ikusteko aukera izan dutelarik. Ikasle guztiak eseri ostean, jardueraren inguruko azalpen txiki bat eman zaie, jarduera beraren justifikazioa, helburu nagusia, prozedura edota irakasleek hartuko duten papera bera azalduz. Behin hau eginda, abestiaren lehen entzunaldia burutu dugu. Lehen entzunaldia egin ostean eta entzunaldia aktiboa sustatzeko asmoz, ikasleei “Ez nazazu utzi” esaldia entzuten zuten bakoitzean eskua altxatzeko eskatu diet, abestian beran arreta gehiago jartzeko. Ariketa hau eginik, ikasleei hutsunez betetako fitxa bat

eman diet (ikus 4. eranskina). Abestia bitan entzun eta ikasleek hutsune guztiak bete dituzte, horrela, letra behatzeko aukera izan dutelarik tertulia burutu aurretik. Hutsuneak bete eta hauetan jarri beharreko hitzak denen artean zuzendu ostean tertuliari hasiera eman zaio.

Tertuliari ariketaren azalpenean zehaztutako galderak eginez eman zio hasiera. Ikasleek erantzun ezberdinak eman dizkiete galderei eta erantzun hauek oinarri harturik tertuliari jarraipena eman zaio saioari berari amaiera eman arte. Esperientzia hau oinarri izanik, ariketa bera aproposa dela egiaztatu da. Izan ere, abestiaren lanketaren bitartez ikasleek zuzenean gabezi baten edota heriotzaren gaian kokatu baitute elkarrizketa, askatasun osoz gaiaren inguruan mintzatuz eta beraien uste zein iritziak gainerakoekin partekatuz. Hala ere, jarduera hau praktikan jarri eta nahikoa ez bada, ariketa bera behin baino gehiagotan burutu daiteke. Dena den, burutu ahal izateko oinarri moduan erabilitako abestia bera aldatzea komenigarria litzateke, abestia aldatuz gero ikasleen baitan bestelako erantzun edota sentimendu batzuk sustatu daitezkeelako, helburura gehiago hurbiltzen direnak esaterako.

#### **4. EMAITZAK ETA ONDORIOAK**

##### **4.1 Emaitzak**

Lana burutzeko beharrezko informazioa bildu, inkesta helarazi, emaitzak lortu, jarduera ezberdinak proposatu eta lehenengo jarduera bera praktikara eraman ostean, lanaren inguruko emaitza ezberdinak lortu dira. Horiek horrela, hurrengo lerroetan lortutako emaitza ezberdinak plazaratuko ditut.

Batetik, inkestan lortutako emaitzak aurkeztuko ditut. Galdetegiko hamar galderak aztertu ostean (ikus 2. eranskina), lanarekiko esanguratsuenak izan diren emaitzak aipatuko dira. Hasteko, heriotzarekin nolabaiteko kontakturik izan duten galdetzerakoan, irakasleen baiezkoen eta ezezkoen erantzunen kopurua nahiko parekatua izan dela esan daiteke, marko teorikoan aztertu bezala, egunerokotasunean gertatzen ez den gaia izan ez arren, gertatzen dela berretsiz. Dena den, presentzia hau argiagoa izan da aurrerago egindako galdera batean, heriotza gertatzen dela oinarri izanik, irakasle askok azken honek ikasgelan presentzia gehiago izan beharko lukeela salatzen baitute. Gainera, honekin batera, baliabide urritasuna adierazi dute, irakasleek

baliabide gehiagoren beharra dutela azpimarratuz eta beste behin, bildutako informazioan jasotakoa egiaztatu egiten da errealitatean.

Azkenik, inkestaren azkeneko galderetan, irakasleen gehiengoak doluaren fase ezberdinak ezagutzen dituela aitortzen du, baina ikasleekin heriotza eta honek dakartzan ondorioak lantzeko baliabideez galdetzerakoan, hutsune handi bat nabari daiteke, gehiengoak ez baitu halako jakintzarik eta aldi berean, irakasleek heriotzarekiko formazio bat beharrezkoa dutela aitortzen baitute emandako erantzunen bitartez. Beraz, jasotako informazioan adierazitako hutsunea errealitateari buruz egindako ikerketan egiaztatu da, heriotzaren eta doluaren lanketaren baitan hutsune handi bat dagoelarik hezkuntza munduan eta irakasleak egoera puntualei aurre egiteko gai izan arren, formazio zein informazio falta itzela dagoela egiaztatu daitekeelarik.

Inkestan lortutako emaitzak aurkeztu ostean, praktikara eramandako jardueran lortutako emaitzak aurkeztuko dira. Orokorrean, emaitzak positiboak izan direla esan daiteke, ikasleek jarduera burutu eta aztergai den gaiaren inguruan mintzatu direlako. Hala ere, abestiaren egokitasuna oso garrantzitsua dela esan beharra dago. Izan ere, nire kasuan Lurdes Iriondo eta Xabier Leteren “Ez nazazu utzi” abestia erabili izanak, lanketa bera asko erraztu du, abestian oso argi adierazten delako gabezia edota heriotza bera eta ikasleek arazorik gabe ulertu dutelako ideia. Aldi berean ere, abestia entzuteaz gain, letra irakurtzeak asko lagundu die ulermenean eta abestiak berak duen melodiak gai honekin lotutako sententzioak bizitzera eraman ditu ikasleak.

Ikasleek emandako erantzunei dagokienean, baloratzeko eta kontuan hartzeko kontrol orri batzuk erabili dira (ikus 5. eranskina). Azken hauei erreferentzia eginez, ikasleek zintotasunez erantzun dituzte galderak, gainerakoen iritziak kontuan hartuz, errespetatuz eta baita beraienak ere adieraziz. Gaia bera seriotasunez hartu eta tratatu dute, heriotza bera eta dolu prozesuan ikaskide bat egongo balitz laguntzeko gai izango zirela argi utziz eta ahal izan duten esperientzia guztiak partekatu dituzte. Hala ere, zenbait ikasleren parte hartzea oso urria izan da eta hau heriotzaren inguruan ikasleekin ez mintzatzearen isla izan daiteke, deseroso sentitu eta ez direlako parte hartzeko gai izan. Dena den, jardueran lortutako emaitzak oso positiboak izan dira eta bere baliagarritasuna egiaztatu ahal izan da.

## 4.2 Ondorioak

Atal honetan, ondorio ezberdinak aipatuko dira. Ondorio hauek lana bere osotasunean laburbilduko dute, lan osoan zehar egindako ikerketa, bildutako informazio eta izandako esperientzietatik ateratako ondorioak baitira.

Hasteko, ikasleekin edota txikienekin heriotzaren inguruan mintzatzearen beharra azpimarratu nahiko nuke. Txikienekin heriotzaren inguruan hitz egitea beharrezkoa da, beraien bizipenen artean aurkitzen baita eta beraien bizitzan eragin zuzena duelako. Gainera, gaiaren lanketa eginaz, dolu prozesu bat burutzea ahalbidetuko diegu hau beharrezkoa izanik Apraiz-ek (d.b, 3.orr) dioen moduan:

“La única forma de vencer a la muerte, se da a través del duelo y es ese penoso proceso de preocupación por la persona que ha fallecido, ese duro trabajo de aflicción, esa tarea de recordar y mantener la imagen del que se ha ido, de rever su propia vida y la propia relación con él, para poder superar la existencia de su pérdida”.

Bigarrenik, marko teorikoan aipatu bezala, txikienek segurtasun inguru bat behar dute, erreferenteak eta horiek inguruko helduak izango dira. Horregatik, helduek umeak laguntzeko betebeharra izango dute, gaiaz zintzotasunez eta sentitzen dutena partekatuz, txikienei sentitzen dutena adierazteko aukera emanez eta aurre egiten laguntzeko ardura izanik. Dena den, umeen ulermen maila uneoro kontuan hartu beharko da hitz egiterakoan eta argi izan dolu prozesua zertan datzan.

Helduek hartu beharreko jarrera kontuan izanik, hezkuntza munduak egoera honi erantzun bat emateko beharra dauka. Ikastetxeak umeen egunerokotasunean oso esanguratsuak dira eta bizitzen duten egoera berriari aurre egiteko babesa ere bilatu dezakete azken hauetan. Hortaz, irakasleak egoera honen baitan zer esan handia izango du eta Kroen-ek (2002) dioen moduan, baita laguntza eskaintzeko ardura ere. Gainera, azaldu bezala, dolu prozesuan laguntza eskaintzeko musika baliabide indartsua da, emozioak edota sentimenduak adierazten lagundu dakiekeelako ikasleei eta baita bizi duten egoera berriari aurre egiten ere.

Hirugarrenik, lortutako emaitzetatik, heriotza ikasgelan ikusten den fenomeno bat dela ondoriozta daiteke eta irakasle askok beraien burua bizitutako egoera puntualei aurre egiteko gai ikusi arren, ikasgelan heriotzak berak beharrezkoa duen presentziarik ez duela ikusi eta aldi berean ere, irakasleek baliabide eta laguntza gehiago izan beharko luketela sentitzen dutela azter daiteke. Are gehiago, irakasleen gehiengoak doluak

dituen fase ezberdinak ezagutu arren, hutsune handia adierazten dute heriotza bera edota honek ekar ditzakeen ondorioak ikasleekin lantzeko baliabideen inguruan galdetzen zaienean eta hau kontuan izanik, irakasleek heriotzaren didaktikaren inguruko formakuntza baten beharra salatzen dute. Horiek horrela, heriotzaren zein doluaren inguruko lanketa bat beharrezkoa izan beharko litzateke, irakasleak gai honekiko ahaldundu ahal izateko eta egun bizitzen diren egoera ezberdinei erantzun egokiak emateko.

Laugarrenik, materiala sortzeko arazorik izan ez arren, honen erabilera eta eraginkortasuna erlatiboak direla ikusi ahal izan dut. Izan ere, erabilitako abestiak (melodia, instrumentazioa edo letra, besteak beste) edota ikasleei eskatutako sorkuntza motak ikasleen adinaren arabera moldatzea beharrezkoa izango da bilatzen diren emaitzak lortu ahal izateko. Hortaz, heriotza gaia landu nahi duen irakasle orok erabiliko duen materiala edota baliabideak zehatz-mehatz aztertu beharko lituzke, egokitasuna baloratzeko eta lanketa egoki bat burutu ahal izateko.

Azkenik, lana bera egiterakoan dolu prozesu baten baitan dagoen ikasle bat ez izateak emaitzak eta ikerketa bera mugatu ditu. Nahiz eta errealitatean taldeak duen indarra ikusteko aukera izan eta lortutako emaitzek talde indarra berretsi duten, benetako edota guztiz fidagarriak diren emaitzak ez dira lortu. Hala ere, esan bezala, talde indarraren eraginkortasuna berretsi ahal izan da eta aldi berean, planteatutako jardueren eraginkortasuna ere, jarduera aurrera eramanez, ikasleek heriotzaren gaia lantzeko eta tratatzeko duten gaitasuna ikusi baita.

Beraz, guzti hau esanik, ikasleekin mintzatzea beharrezkoa dela aintzat harturik, irakasleak heriotzaren didaktikaren baitan formatzea beharrezkoa izan beharko litzateke, eskura dituzten baliabide ezberdinak ezagutzeko eta heriotzaren baitan lanketa egoki bat burutzeko, gaiak presentzia handia baitauka ikasgelako errealitatean eta hau burutu ahal izateko, musika baliabide aproposa dela egiaztatu da.



**5. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK**

- Apraiz, I. (data barik). El duelo. Como ayudar a lo niños/as a afrontarlo. *Escuela Vasco-Navarra de Terapia Familiar*.
- Bernstein, L. (2002). *El maestro invita a un concierto*. Madril: Siruela.
- Bisquerra, R. (2011). *Educación Emocional. Propuestas para educadores y familias*. Bilbo: Desclée de Brower.
- De Jong, E. (2017). Beneficios de la música para niños y jóvenes. *Psicólogos y terapeutas en Ciudad de México*.
- De Jong, E. (2017). Música como terapia: conoce la musicoterapia. *Psicólogos y terapeutas en Ciudad de México*.
- De la Herrán, A. & Cortina, M. (2006). *La muerte y su didáctica. Manual para Educación Infantil, Primaria y Secundaria*. Madril: Universitas.
- De la Herrán, A. & Cortina, M. (2008). La práctica del ‘acompañamiento educativo’ desde la tutoría en situaciones de duelo. *Tendencias Pedagógicas*,(13), 157-173.
- Feijoo, P. & Pardo, A.B. (2017). Muerte y educación. *Tarbaya, revista de Investigación e Innovación Educativa*, (33), 51-76.
- Fleming-Holland, A. (2008). Reflexiones sobre la Muerte: el Duelo Infantil y el Suicidio Juvenil. *Psicología Iberoamericana*, 16, (1), 8-14.
- Gala, F.J., Lupiani, M., Raja, R., Guillén, C., González, J.M., Villaverde M<sup>a</sup>. C. & Alba, I. (2002). Actitudes psicológicas ante la muerte y el duelo. Una revisión conceptual. *Cuadernos de Medicina Forense*, (30), 39-50.
- Gala, F.J., Lupiani, M. & Díaz, M. (1991). Sobre las concepciones de la muerte. *ROL*, (159), 63-66.
- García, A. & Aura, M.C. (2010). *La gran carencia. Muerte, eutanasia y educación*. Murtzia: Diego Marín Librero Editor.
- Gaston, E.T. (1957). Factors contributing to responses to music. *Book of Proceedings*, 23.

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Hezkuntza Fakultatea

- Gomila, A. (2008). Música y emoción. El problema de la expresión y la perspectiva de segunda persona. *Significado y expresión en la música*. Madrid: Machado Libros.
- Guillén, E., Gordillo, M<sup>a</sup>.J., Gordillo, M.D., Ruiz, I. & Gordillo, T. (2013). Crecer con la pérdida: el duelo en la infancia y adolescencia. *INFAD Revista de Psicología*, 2, (1), 493-498.
- Gutiérrez, A. M. (2018). La música en el tratamiento de patologías físicas y psíquicas. *AV NOTAS Revista de investigación musical*, (4), 23-33.
- Hillecke, T., Nickel, A. & Bolay, H.V. (2005). Scientific perspectives on music therapy. *Annals of the New York Academy of Sciences*, 1606, 271-282.
- Juslin, P. N. & Sloboda, J. A. (2001). Music and emotion: Theory and research. Oxford University Press.
- Kübler-Ross, E. (1989). *Sobre la muerte y los moribundos*. Barcelona: Ed. Grijalbo.
- Kroen, W.C. (2002). *Cómo ayudar a los niños a afrontar la pérdida de un ser querido: un manual para adultos*. Barcelona: Oniro.
- Marinovic, M. (2017). El dolor humano y la musica. *Revista Aisthesis*, (33), 63-81.
- Markusen, E. & Fulton, R. (1971). Children Bereavement and Behavior Disorders: A Critical Review. *Omega*, 2.
- Neimeyer, R.A. (data barik). *Aprender de la pérdida. Una guía para afrontar el duelo*.
- Romeo, F.J. (2011). Los niños y niñas y la muerte. *ACENTO creando espacios infantiles*, (60), 17-22.

**ERANSKINAK**

## 1. ERANSKINA: Inkesta

**LEHEN HEZKUNTZA ETA HERIOTZA**

\* Derrigorrezkoa

**1. Generoa \****Markatu aukera bakarra.*

- Maskulinoa  
 Femeninoa  
 Ez dakit / Ez dut erantzuten

**2. Adina \****Markatu aukera bakarra.*

- 20-30  
 30-40  
 40-50  
 50-60  
 60 edo gehiago  
 ED / EE

**3. Zenbat urte daramatzazu irakaskuntzan lanean? \****Markatu aukera bakarra.*

- 0-10  
 10-20  
 20-30  
 30-40  
 40 baino gehiago

**4. Heriotzarekin nolabaiteko kontakturik izan duzu ikasgelan? \****Markatu aukera bakarra.*

- Bai  
 Ez  
 ED / EE

**5. Aurreko galderan zure erantzuna baiezkoa bada, egoerari irakasle moduan aurre egiteko gai ikusi duzu zure burua?***Markatu aukera bakarra.*

- Bai  
 Ez  
 ED / EE

6. Egun, heriotzak ikasgelan beharrezko presentzia duela uste duzu? \*

*Markatu aukera bakarra.*

- Bai  
 Ez  
 ED / EE

7. Aurreko galderan zure erantzuna ezezkoa bada, irakasleek gaiarekiko laguntza eta baliabide gehiago izan beharko lituzketela uste duzu?

*Markatu aukera bakarra.*

- Bai  
 Ez  
 ED / EE

8. Doluaren fase ezberdinak ezagutzen dituzu? \*

*Markatu aukera bakarra.*

- Bai  
 Ez  
 ED / EE

9. Ikasleekin heriotza eta honek dakartzan ondorioak lantzeko baliagarria den baliabiderik ezagutzen duzu? \*

*Markatu aukera bakarra.*

- Bai  
 Ez  
 ED / EE

10. Irakasleek heriotzarekiko eta honen tratamenduarekiko formakuntza beharrezkoa dutela uste duzu? \*


*Markatu aukera bakarra.*

- Bai  
 Ez  
 ED / EE


**MILA ESKER!**

---


## 2. ERANSKINA: Inkestako galderen interpretazioak




1.grafikoa. Lehenengo galderaren interpretazioa




2.grafikoa. Bigarren galderaren interpretazioa.




3. grafikoa. Hirugarren galderaren interpretazioa




4. grafikoa. Laugarren galderaren interpretazioa




5. grafikoa. Bosgarren galderaren interpretazioa



6. grafikoa. Seigarren galderaren interpretazioa




7. grafikoa. Zazpigarren galderaren interpretazioa




8. grafikoa. Zortzigarren galderaren interpretazioa





9. grafikoa. Bederatzigarren galderaren interpretazioa



10. grafikoa. Hamargarren galderaren interpretazioa

## 3. ERANSKINA: Ez nazazu utzi

Ez nazazu utzi, nik ez zaitut utziko

Ez nazazu utzi, ez, nik ez zaitut utziko

Negar egingo duzu ilunabarrean

Baina poztuko zera eguna argitzean

Ez nazazu utzi, nik ez zaitut utziko

Ez nazazu utzi, ez, nik ez zaitut utziko

Amets egingo duzu ilunabarrean,

Libre jarriko nautela eguna argitzean

## 4. ERANSKINA: Fitxa hutsuneekin

Ez \_\_\_\_\_ utzi, nik ez zaitut utziko

Ez nazazu utzi, ez, nik ez \_\_\_\_\_ utziko

Negar egingo duzu \_\_\_\_\_

Baina \_\_\_\_\_ zera eguna argitzean

Ez nazazu \_\_\_\_\_, nik ez zaitut utziko

\_\_\_\_\_ nazazu utzi, ez, nik ez zaitut utziko

\_\_\_\_\_ egingo duzu ilunabarrean,

Libre jarriko nautela eguna \_\_\_\_\_

## 5. ERANSKINA: Kontrol taulak

	Interesa	Parte Hartzea	Ulermena	Errespetua	Entzuteko jarrera	Gustokoa
Ariane						
Xabier. A						
Unai						
Miren						
Telmo						
Malen O.						
Malen G.						
Izaro						
Kattalin						
Iker Z.						
Iker P.						
Xabier E.						
Xabier G.						
Mikel						
Ander						
Nora						
June U.						
June O.						
Ione						
Jon						
Olatz						
Iria						
Uxue						
Ane						
Enaitz						
Maidar						
Libe						

	Melodia	Tresnak	Letra	Erritmoa	Altuera
Ariane					
Xabier. A					
Unai					
Miren					
Telmo					
Malen O.					
Malen G.					
Izaro					
Kattalin					
Iker Z.					
Iker P.					
Xabier E.					
Xabier G.					
Mikel					
Ander					
Nora					
June U.					
June O.					
Ione					
Jon					
Olatz					
Iria					
Uxue					
Ane					
Enaitz					
Maidar					
Libe					

## 6. ERANSKINA: Abestien zerrenda

**Musika klasikoa (tristea)**

- Verdi: “Coro de los esclavos”
- Maler: “La mama morta”
- Carl Orff: “Carmina Burana o Fortuna”
- Ennio Morricone: “La misión”
- Mozart: “Requiem: Lacrimosa”
- Schubert: “Sonata para piano N°20, Andantino”
- Purcell: “Dido and Aeneas”
- Offenbach: “Les larmes de Jacqueline”
- Bach: “Matthäus-Passion”
- Lili Boulanger: “D`un soir triste”
- Shostakovich: “Adagio”
- Händel: “Dixit Dominus: De torrente in via bibet”

**Musika klasikoa (alaia)**

- Leroy Anderson: “La máquina de escribir”
- Bizet: “Galop, juego de niños”
- Mozart: “Sonata KV 331 Marcha Turca, Allegretto”
- Mendelssohn: “Danza de los payasos”; “Sueño de una noche de verano”
- Saint Paul Chamber Orchestra: “La gallina”, “los pájaros (respighi)”
- Filarmónica de Berlin, Seji Ozawa: “Danza del sable (Khatchaturian)”

**Kantak**

- Pirritx eta Porrotx: “Maite zaitut amatxo”
- Txirri eta Mirri: “Zaintxo”
- “Katuaren testamendua”
- “Txuriko”
- “Nire herriko neskatxa maite”
- Mikel Laboa: “Ez nau izutzen” , “Izarren Hautsa”, “Nahiz eta heriotza”
- “Maitia nun zira”
- Lurdes Iriondo: “Ez nazazu utzi”
- “Xalbadorren heriotzean”
- Benito Lertxundi: “Kantuz”
- “Agur Jauna”

**Pelikuletako kantak / soinu banda**

- Alabama Monroe: “If I needed you”
- The mission
- Legends of the fall
- Titanic

**Gradu Amaierako Lana.** Bilboko Hezkuntza Fakultatea

- Gladiator
- Doctor Zhivago
- Lara's name
- Schindler's list
- Les choristes: "Sur ton chemin"
- Master and commander
- The concert
- Prelude: "Cello suite n°1 in G mayor BWV"